



Efoma'tik.

Batikano'ko izparak.—Mixiño-eguna lurbira gustian andikiro ospatu da. Salotti agurgariak Aita Santua'ren izenean egin eban deyari erantzunaz. Asmakizun bafiak, ifatizkin afigariak, lan onuratsua egin dau, dei samur, sutsu eta eragileak lurbira gustira zabalduaz. *Radio Batikano'tik* egin eban itzaldia benetan edefa izan da. Mixiñolariaren gorralben andiak egin ditu, egiaren aldeko gudari bikaña, beldu edo apostolu sutsu ta kementsua, eta bere odolaz goitar egiak zabalduaz, ziñopa goragafia zala esanaz. Bere asmoak ziñestea, maitasuna ta gizabidea zabaltea dira. Itxas baster, mendi guren eta oyan itzaltsuetan, bakartade itzaletan ziñesteko egia kementsu zabalitzen dau. Maitasunak sututa, gizon gustieci Yaungoikoa'ren seme ta bere anai diralako, zoritxar eta ezbear eta estutasun gustietan laguntzen dautse, erietxe, osatetxe, umezurtz eta ama ta zafai laguntzeko alde gustietan toki egokiak iragiten ditu. Eta gizabidearen alde lan egiteko, ikastolak, txiki ta andientzat, iragiten ditu, erti-lanak irakasteko landolak, lugintza ondo erabilten irakasteko lugin-ikastolak, adimeneko yanari dan egiaz batera ogia irabazten irakatsiaz. Ofetarako Yaungoikoa bakarik daki, igaro bear dituen uritasun, neke ta estutasunen bafi.

Au egiztuteko zenbaki batzua, aitatu zituan. «Propaganda Fide» menpean lan egiten daben 480 mixiñolariatatik askok, 300.000 kilometro luñetako biztanleak bere ardurapean ditue. Gustiz, 20.000 mixiolari dira ziñesge artean lan egiten dabenak. 5.000 dira mixiño eñietako seme diran abadeak. 30.000 lekaime (monjak) maitasunezko zeregiñetan laguntzen deutse, eta 100.000 katekistak laguntzen dautse.

337 abade ikastetxetan 16.000, mixiño erkietako seme diran abade ikasle gertatzen diardue. Orixe naiko ez ete da, eleiztar gustion biotz eta sakelak euren alde zabaltzeko, XI'n Pio'ren dei samufari erantzunaz?

Itzaldia ingalanderaz, pantzeraz, doñteraz espaneraz, eta polakeraz beñesan zan. Ingalanderazkoa esaten ziarduela, Berlin etik iragari eban, eta Quebec etik ederto entzuten zala esanaz Aita Santua'ri onespina eskatzen eutsen, eta alantxe Gianfranceschi abaren bidez bialdu eutsen. Egun benetan pozgafia izan zan.

Aita Santua ta Eleiz ertikera.

Egunokaz, Batikano'n margo-ertil-lanen (pinturen) areto bafiarene zabalkundea izan da. Bertan ziran amazortzi kardenal eta euren artean Irlanda'ko Gotzain-burua, eta latefi ordelariak (diplomatikoak). Nogara yaunak egindako itzaldiari erantzuten Aita Santuak esan eban margo-lan Biltegitzat toki bafi bat egin eba, bere aufetiko Aita Santuen

asmoa betetzearen, eta ufengoari ardura ori kentzeko. Baña batez be aldi ufi oneitan ainbeste langile onai iru urtean lana emotearen egin ebala esan eutsen. Gero Rafael, Miguel Angel eta Beltrami arkitetoaren lanak gorralduaz, gaur egunean eleiz-ertikeran be sartu gura diran bafikeriak gaiztetsi zituan, batzuk ifi lanak diralako eta beste batzuk goitar aztefenik be ez dabelako. Eta gauza bafiak balira be, baña irudi batzuk Aro erdiko aldi ilunetako idazti batzuetatik artuak dira. Bere guraria onetan, Eleiza'ren aginduak betetea da, olango erti (?) lanak eleizetatik baztertuaz. Auferapena, yakituri ta ziñestez arautua danean ontzat emon bear da, eta Gotzain ardua da, lege ofeik bete eragitea, eta eleiztafai afeta kerdu ta yaunzaletasuna nastu leikien lanak, eragozte. Ondoren Biltegi-ko amalau urteetako lanak ikusi zituan, Rafael Giotto ta Leonardo Vinci'n erti-lanak batez be gorralduaz.

Ungaritar Katolikoek Batzafa.

Budapest'en urteroko Batzar nagosia ungaritar katolikoak andikiro ospatu dabe. Ziñeste arauz, gizon eta gizarteari dagokiozan erabagigayak aztertu ziran. Langileak egun berezia izan eban. Goizean ibildeuna Gure Jaunagaz egin eban, Estepan deunaren eleizatik urtenda. Budapesteko langile-bazkun, ikastoletako umeak. Euron artean 6.000 burdin-bide langileak, eta 8.000 meado miñetako langile. Tiro'eko gurutze-izugafia afean ebela, ikasleak, bazkunak, abadeak eta abar. Bidezkundera Aldundira zuzendu zan. Csanad'eko Gotzainak yaupa abestu eban. 100.000 bat lagun bildu ziran. Agintariak ordo igari dabe, ziñestea laterien onafia dala, orixe dala ta Ungaria'ko, Goemboes, yaurlari buruak, ointzu esaten eban, «ziñeste sustraitua» etiketaren onafia dala.

Italitar Katoliko Ekintza osagileen batzafa.

Firenze'n ospatu dabe katolikotar osagileak batzar garantzitsu bat. Elia Dalla Costa Gogotzain agurgafia txalo sutsuz agurtu eban. Batzafa Gongotzainaren otoitzaz asi zan. Picchi osagile yakintsuak, Aita Santuak zuzendu eutsen idazki edefa irakufi eban. Yakiña da, Aita Santuak osagileak oso maite dituala, orain-

tsu 37 latefitik bilduta, ikertu eban 900 osagile Efoma'n bildutakoai agertu eutsenez. Idazki onetan batzar ori egiten dabelako poz andi bat artzen dabela adirazten dautse, batez be «Casti Conubii» ezkontzazko idazkian irakatsi ebanen arauz adiraltzeak egingo dituelako. Ofez gañera, euren arasoan, kistar irakatsiak gogoen eukiez gañera, zabalkunde (apostolau) edefa gizartearen alde egiteko aukera edefa dabela esanaz, batzar ori Eleiza'ren lanaren laguntzale izango zala uste osoa dabela. Eta Bere onspena biotz osoaz emoten dautsiera irakufi ebenean, bertan ziran 200 osagile yakintsuak txalo be-roak yo eutsoezan.

Picchi irakasleak esan ebenez, egizko osagileak buruan sartuta euki bear dau, gexoakaz egiten dauan lanak, abadearen antze-koak izan bear dau, gizon *osoari* on egitekoak. Batez be ikasbide onez, eta zeregiñari goitik begirata, otoitzez eta gogo-bizitza mardulduten aleginduta. ¡Batzuk, bear ba'da, au irakufita, iifabae egingo leukie, baña gauzai diran lez begiratu ezkeru, benetan artzeko gauza dala oartuko leukie. Beste lan batzuen artean Gemelli abaren lan eder bat adiraldu zan. Eta Gongotzainak itzaldi eder bat egin eban, osagileen lana gorralduaz.

Contardi Ferrini yakintzu bakana onbidetsua.

Pavia'ko irakasle yakintzu au il zala Ufila'ren 17'n 30 urte bete dira, eta bera deunen izendegian ipinteko lanak aufera doaz. Efoma'tar legedi-yakintzan Europa'n bardiñik ez eban izan, ao batez autortzen dabenez. Aita Santua'ren aizkide andia zan, eta bera il zanean aitari bialdu eutson idazkian bere yakituri ta onbideen gorralben andienak egin zituan. Eta bere onbideen gurentasuna ontzat emon ebenean 1931'n. Pio'k esan eban, beti gaste ta beti alai agertzen zala: ibilera bizkor eta sendoa, begirakun gozoa, biotz bikaña, onbidetsua, adimen sakon, zofotz, bizkor ta gai gustietarakoa, itz baten alde gustietara dis dis egiten daben aribitxia langoxea zan. Laster aldaretan ikusiko al dogu.

Polonitar 18 abade azke.

Rusia'n espexetuta, nekerik ikaragafienak igaro ondoren, komuniste espexetu-truke 18 abade polonitar boltxebikiak azke itxi ditue. Izugafiek 1926 ezkeretik igaro ditue. Azkenengo unerarte ezer ez eban yakin eta poz izugafia artu eban.

M'tar G.

BANCO DE VIZCAYA

GRAN VIA, 1 - BILBAO 'N

Legezko dirutza: 100.000.000 lauerleko. Ipiñiriko dirutza 60.000.000 Gerorako dirutza berezia 50.000.000. Diru-etxe onek Banka, Bolsa ta Kanbijo'ko edozein arñu-emon egiten dau,

EMOTEN DAUN IRABASIA (ERÉITUA)

Noz-gurako afiu-emonetan (Cuentas Corrientes)

Eskatuta bertatikoa.....euneko 2'70—Berarizkoak.....euneko 3,00

Diru-iplinletan

Iminiña iru ilabetian ez atarateko, euneko 3'50
 » sei-ilabetian ez atarateko » 3,75
 Iminiña urtebetian ez atarateko euneko.. 4,25
 Aufezki-kutxan (Caja de ahorros) » 3'75

Euskal-erriko izparrak

BIZKAYA

Gernika.

Axangiz'en.

Geure Txara-Txara'ko eletari bikain diran Xusi'tar Miren eta Bafenetxea'tar Peli, igandian Axangiz'en izan zirean.ango Batzoki eta Emakume Abertzale Batza'ko ikurifinoneskandia zala-ta.

Eta Axangiz'ko abertzale batek dirauskunez biyok ederto itz-egin eban.

Ofek eskauz batxu be mirariteten, doyanan alde guztietan ondo txalokatuak izaten dira-ta.

Eskontza.

Lauzurika'tar Polentzi eta Aresti'tar Berte emengo neskatilea laster eskontzeko dira.

Lenengo eleiz-deyak, igandean joan yakeozan, beintzat. Zorionak aufetiaz.

Jayotzat.

Seijo Endeiza'tar Todor'en emastiak euren lenengo aiabatxua ekafi dau.

Leginetxe'tar Andoni'ren emastiak be alabatxu bat.

Baita Untzeta Bafenetxea'tar Efulpin-enak be neskatilatxu bat.

Bermeosolo'tar Todor'enak, bafiz, semetxu bat.

Guztiori zorionak.

Eriotzak.

Joan dan astian II zan Omagoxeasko'tar Efamun, bafu-bafuko adiskidia genduan.

Igaro zan barikuan il zan urte askotan Luno'ko Kepa deunaren txauburu izandako Ormaetxebafia'tar Ermenegilda Abade jaun gurgafia.

Astelena.

Azkenengo Ufiko astelena be, bere aurtengo anaya guztien antzekoa izategaitik-edo, ondo euritsua izan gendun.

¡Egun guztian euria geratu ez, baña, gizona!

Alan da guzti be, geure kale, jaltetxe eta akeitetxe guztiak, lagunez beterik egun guztian egon zirean.

Amabietan geure eresbatzak erestalki eder bat jo eban.

Afatsaldeko ordu bi ta erdietan pelota-tokian, gizon indarketia izan zan.

Nabarniz'ko sei-mofosko, ugalesko gafiekoekin idi-indarketetako afitxikiari lotuta an ikusi genduan.

Iru untze eta erdiak ogeta amasei minutuan bete zituezan, eta, onan, egindako jokoa irabazi.

Indafa ugari ebela erakutsi euskuen mofoskook.

Afatsaldeko lauretan eta gabeko bederatziterdietan pelota-jokoak egin ziran.

Gero ordubatak ingururarte jantzea egon ei-zan...

BELU-MENDU

Mañari.

Kisto'ren Eregetza.

Igandian, Kisto gure egizko Efezia'ren opaz, emeko elexan, Jaunartze asko ta elizkizun edefak ospatu ziran. Eta, meza bijetan, abade bijak jaya'ren anditasuna ederto baten azaldu euskuben. Mafasuna, aintza ta andixurena Berari!

Juan-Etorijak.

—Emen aldi luze bat igarota, larunbatian juan zan Bilbao'ra, Bafenetxea'tar Ander. Baña Bilbao'ra juan zan, Zabarte'tar Bedite neskatila be.

—Oba'ra juan zan, Bizkaña'tar Pele neskatila.

—Igandian egon zan emen, Are-

txabaleta'tar Paul («Idartza»ko Paulo).

Gexorik.

Aspalditxuan gexorik aurkitzen da, Arana'tar Joseba Andoni mutikua. Osasuna opa dautsogu.

Emakume-Abertzale-Batza.

Igaroriko ilaren 23'gn, egin za batzafian, bazkuna'ko Artezkaritzabatza autetsi zan. Gustijen on-eretzix izentau ziran batzarkidiak, ona emen.

Lendakari: Bustintza'tar Efose.

Lendakari-orde: Bernaola'tar Pele.

Idazkari: Subinaz'tar Jone.

Diruzain: Arteaga'tar Luke.

Batzarkidiak: Ortuoste'tar Pele, Arteaga'tar Salome, Sarobe'tar Keppe, Arteaga'tar Jakinde, Irastortza'tar Miren eta Gerediaga'tar Jonetxu.

Ona ba, emen gagoz, Jel-aldez al doguntxua egiteko gertu. Geure egintza gustijak, Jaun-Goikua'ren gogokuak ixango al-dira...

«Aldija geugaz, ta geu beragaz».

Aurtengo udagoyenak, geuk gura dogun baño lenago neguratu biar gatu. «Axe-burdija»ren sufian, arinka iraduz doyan zaldi bizkofak, gura eztogula be aufera eragiten daskuta.

Larunbata afatsaldian, Anboto afix jagija, txartez zuriaz ondo estalduta ikusi gendun. Onik aufera, axe otza etxaku paltako beintzat.

MAÑARIKO

JANTZIAK

gizonentzako Teodoro-n egingotzue iñun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.

TOVALINA Y C.ª L. D.

SOMERATT
BILBAO

Lenengo oñian sartukeria dendatik.

Otxandijo.

Eriotza.

Igaro dan barikuen Jaungoikua beragana deitu otsen geure txauburu agurgafijaren amari. Atsekabe onetan laguntzen dautsogu biotz biotzez berari ta beste sendi gustiari. Efitafak argiro erakutsi dautse zelan maitatzen dabezan. Irakurle, otoi bat egin, bere alde. Goyan bego.

Antolatut kalie.

Afabal kalie gustiz ederto ipñi dabe Aldundi'ko bide-zainak. Apoita, pozik egon bafien, asafe aurkitzen zan lengo egunian, endoriek oriyak ipinteko agindu ta telatue apurtute eukela etxiek eta ofegaitik orie ipintie arpelik ixengo zala; lenengo telata aspikue atara, gero telatue ipiñi, bier dan eran, eta gero orie ipiñi, artez egin biar ziriela, gogor diar egiten eban, begi bata erdi itxiyan ta bestie zabaldu barik eukela. ¡Onk Ubide'tafok, gizon txikiyek izen afen, burue sano daukie gero!

Burundarie ugeri.

Aspalditxo onetan burundarie ugeri dabil efi bafuan; danak daukie bata bestiegaitik zer esana. Efitafak danok ondo daksuguna da, lenengo eskatzen doguna dala osasuna ta bakia, ofegaitik ba, bakotzak bere efuak arteztuten alegin egin daigun, bestiari ez zirikatu, txarto badabil osian alegin daigun onera ekarteko. Bakia danen ganetik ta anaitasunen bizi, batez be, guk uzkuriza-kerespean aspiyan bizi garenek. Tamalez naiku arerijo dauku toki gustiejetatik!